

*Gracieuse Hondagneu
Santa Grazi, Zuberoa (1895)*

Aurkibidea

Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 18 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Pierre Hondagneuren alaba. Euskalkia: zuberera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.204 eta 2.205

Zintak

SAN-001

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-08-08
- **Iraupena:** 4 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Santa Graziko gizona eta Basajauna

- **Erref:** SAN-001/001
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:02

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Santa Graziko bizilagun bat mugaz bestaldetik etxerantza zihoan kontrabandoko gazta zuela. Ekaitz izugarri batek harrapatu eta kobazulo batean babestu zen. Basajauna zegoen han, askotan deabruarekin lotu izan dena. Basajaunak hiru egi esateko eskatu zion, bestela arriskuan egongo zela.</p>

Transkripzioa

Beste ordüz Sarko Santa Grazikua jiten zelarik Españatik bizkarra gazna kuntrebandazko kargatürik garden lotsaz sarthü zen Ehujarreko arrolla handian eta hantik ezin jelkiz zelarik ülüna jin zen eta tenpesta izigarri bat ere bai. Lotsatürik biderik ezin heretsatüz zelarik ikusten dü argi bat arphe handi baten pian, harat бүрүз indar egiten du, ziularik: izanik ere debria bere adar okherreki behar diat horra illhaintü. Ediren zian ez debria bena basa jauna ari zela ezpel adar handi baten phuntan ahari baten osorik erratzen. Sarko harriturik etzen zotükhatzen ahal, basa jaunak erraiten dero: sar adi ahari hau janen diagü biek eta denbora hartan hirur egia handi ezpadeitak erraiten, nik hi janen hait, aspaldian kiristi aragiaren txesta nahian beniz. Sarkok erraiten dero botza aphaltuz: jauna, erraiten dizie gai zohardian argizagiak argitzen dialarik: hau egüna bezan eder den egiraia düzü; nik eztit hola edireiten. Arrazu duk, bat badük edirenik. Jauna erraiten dizie mestüra jan batzutarik jaten ari delarik: hau ogia beno hobe düzü: nik eztit hola edireiten. Arrazu dük, dio basa jaunak. bida batük edirenik. Jauna uste ükhen banü zure heben batzia gaur anündüzün hunako. Hori dük egiarik handiena dio basa jaunak, abil bena ehadila ene bidian üsü agi.

2. Emaztegaia tximiniatik gora

- **Erref:** SAN-001/003
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:02:09. **Bukatu:** 00:03:52

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Emaztegaia ikustera joan eta hau tximiniatik gora nola zihoan ikusi zueneko istorioa. Senargaiak gauza bera egin zuen, emaztegaia jarraiki. Orduan ikusi zuen sorgina zela eta deabrua ere bertan zela.</p>

Transkripzioa

Bidabe Santa Grazikua emaztegeiaren ikhustera berantto juaiten zelarik sükhalteko leiho xilotik so jarri zen barna sarthu beno lehen; ikhusten du

neskatila su pazterreko harri bat eraikirik hantik üntamio bat har eta khorphitzaren üntatzen eta berhala tximinian gora juaiten. Sartzen da barna et'emaztegeiaren ber üntamiuaz zerbüttxatzen da eta berbidiaz airian juaiten. Heltzen da ordoki eder batetara nun beitzen musika süerte orotarik. Han ikhusten du emaztegeia belhagile lagünekin dantzan. Jargü eder batetan zen ororen nausi adar handi eli bateki. Aski libertitu zirenian nausia eman zen belhaniko büria, jargian pausatürik eta zaragollak aphaltürik, oro herrokan juan ziren ordian haren gibel aldiari pot emaitera. Bidabek beitzian xakolan eskalanpu adelatzeke phuntsu txorrotx bat ahuaz emaiteko phartez phuntsuaz eman zeron pota ahal bezan azkarki. Nausiaren arrama izigarri bateki oro hantik galdü ziren eta Bidabek ediren zian bere buria harri eta elhorri baizik etzen güne batetan bere etxiain hürrünxko, etzen haboro neskatile haren ondolik juan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com